

Zuzentzen testuak bizkaitarrez idatziak (II)

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

Mondragon Unibertsitatea
mitxel_kaltzakorta@huhezi.edu

Abstract

The author proposes to examine a number of texts written in Bizkaian. Since there is not much to correct about the grammar of the texts (grammar mistakes are scant), this contribution focuses on the textual level, particularly the so-called thematic progression. That is, the author looks at the thematic progression from paragraph to paragraph, from sentence to sentence, from the title to the first paragraph, and within each sentence (from start to end).

Laburpena

Egileak arteztu gura ditu hainbat testu bizkaitarrez idatziak. Testuok, arlo gramatikalean zer zuzendu gitxi izango dabenez (akats gitxi egiten dira-eta), ardatz izango dabe arlo testuala, batez be, progresino tematikoa dalakoa. Zehatzago esateko, jorratuko da zelan egiten dan progresino tematikoa paragrafotik paragrafora, perpausatik perpausa, titulutik lehenengo paragrafora eta perpaus barruetan (hasikeratik amaierara).

Keywords: theme (topic of discourse), rheme, thematic progression, coherence, cohesion, appropriateness, thematic coherence, grammatical level, textual level, macro-coherence, micro-coherence

Gako hitzak: temea (mintzagaia), remea, progresino tematikoa, koherentzia, kohesinoa, egokitzapena, koherentzia tematikoa, arlo gramatikala, arlo testuala, makrokoherentzia, mikrokoherentzia.

0. Sartaurrea

Aurreko artikuluan adiarazo genduan zer helburu geneukan artikuluan: arteztu, batez be progresino tematikoaren aldetik, testu batzuk bizkai euskeraz idatziak. Lehenengo artikuluan, besteak beste, azaldu genduan, labur azaldu be, zer zan progresino tematikoa ("Tema-Rema" egiturea dauka, eta bertan tema elementuak adiarazoten dau zeren gainean berba (edo idatzi) egiten dan eta remak zer esaten dan temearen gainean; bestalde, ikusi genduan, adibide bitartez ikusi be, temea izan leitekeala edozein elementu: subjektua, objektu zuzena, objektu zeharkakoa...).

Bigarren artikuluan honetan aurrera egingo dogu eta aztertu progresino tematiko mota oinarritzkoenak:

1. Progresino lineala
2. Progresino tema berekoa
3. Progresino hipertemaduna

Aztertu daiguzan progresino motok banan-banan:

0.1. Progresino lineala

Honelako progresinoko testuak abiatzen dira tema batetik, remea dauala ondoren. Lehenengo rema hori bihurtzen da hurrengo (bigarren) temea, segidan dauala bigarren remea, zeina bihurtzen dan hirugarren temea ... :

Tema1 --- Rema1
Tema2 --- Rema2
Tema3 --- Rema3...

Hona hemen testu eredugarri bat, horrelako progresino motaz egina:

Atzo Kepak Maitegaz egin eban topo kalean eta harek inbitau eban bazkaltzera Arranegi jatetxean, non R. M. de Azkuek jaten ebazan lantzean behin piperrak, Gernika aldetik ekarriak.

Hona hemen zelako progresino tematikoa daukan testu horrek, zeintzuk diran temak eta remak:

Tema1: Kepak

Rema1: atzo Maitegaz egin eban topo kalean

Tema2: Maitek (*harek* bidez)

Rema2: inbitau eban bazkaltzera Arranegi jatetxean

Tema3: Arranegi jatetxean (*non* bidez)

Rema3: R. M. de Azkuek jaten ebazan lantzean behin piperrak

Tema4: piperrak

Rema4: Gernika aldetik ekarriak

0.2. Progresino tema berekoa

Progresino mota honetako testuetan tema bat bera erabilten da, remak beti dirala banak edo ezbardinak. Hona hemen zer eskema dauan progresino mota honek:

Tema1 --- Rema1

Tema2 --- Rema2

Tema3 --- Rema3

Hona hemen adibide eredugarri bat:

Fernando Lakarrak, aditua teknologia barrietan eta lizentziaduna euskeraz, behar egiten dau Mondragon Unibertsidadean. Arranondon jaioa da eta 50 urte daukaz.

Testuak tema bat bera dauka bakarra: Fernando Lakarra(k). Hona hemen zelan egiten dauan progresino tematikoa testu horrek:

Tema1: Fernando Lakarra

Rema1: aditua teknologia barrietan eta lizentziaduna euskeraz

Tema2: Fernando Lakarrak

Rema2: behar egiten dau Mondragon Unibertsidadean

Tema3: Fernando Lakarra

Rema3: Arranondon jaioa da

Tema4: Fernando Lakarrak

0.3. Progresino hipertemaduna

Honelako progresino motako testuak abiatzen dira tema generiko edo hipertema batetik (rema eta guzti, jakina), ostean datozela haren subtema edo azpitema batzuk (lagun dabezela jagokiezan remak). Hona hemen zer eskema dauan progresino mota honek:

Tema (hipertema)

Tema1 --- Rema1

Tema2 --- Rema2

Tema3 --- Rema3

Hezurmamindu daigun eskema hori adibide eredugarriren bat erabilita. Hona hemen bat:

Zuriñe neskari ederrera dago Obaban. Begiak distiratsuak daukaz; titiak, katilu betekoak; eta gorputza, jan nagizukoa.

Ikusten dogunez, testua abiatzen da tema batez (Zuriñe), jagokon remea dauala ostean. Ondoren datoz hipertema horren azpitema (begiak, titiak eta gorputza):

-Tema generikoa edo hipertema: Zuriñe

-Azpitema1: begiak

-Azpitema2: titiak

-Azpitema3: gorputza

Aurreko artikuluan esan genduan hiru mailatan aztertu behar dala progresino tematikoa: testu-, paragrafo- eta perpaus-mailetan. Bigarren artikuluan honetan be halantxe egingo dogu (transizinoak aztertuko ditugu perpaus artean, perpaus barruan, paragraforik paragrafo eta titulutik testura bertara-)

Bestalde, artikuluan honetan aztertu beharrezko testuak, lau, osatuta daude paragrafo bakarrez. Hasi gaituzan testuak artezten eta amaitu konklusinoakaz

1. Testuak artezten

Pasa gaituzan testu bizkaitarrez idatziak artezten edo zuzentzen. Bigarren artikuluan honetarako lau testutxu aukeratu ditugu, paragrafo bakarrekoeak eurok, zer zuzendu askokoak testu arloan. Hasi gaituzan lehenengo testutxutik.

1.testua

Pablo González de Langarikarentzat Urrezko Luma saria

Aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan 'Zurgai' poesia aldizkariko zuzendari eta bihotz eta arimea dan Pablo González de Langarika bilbotarrak jaso dau gaur Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan. Josune Ariztondo BFAko Kultura diputaduren eskutik jaso dau Urrezko Luma saria.

Testua perpaus biz dago osaturik. Aztertu daigun lehenengo perpausa progresino tematikoaren aldetik, zelako transizinoa egiten dauan, batetik, tituluari buruz eta, bestetik, bere barruan, hasikeratik amaierara arte:

Pablo González de Langarikarentzat Urrezko Luma saria

Aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan 'Zurgai' poesia aldizkariko zuzendari eta bihotz eta arimea dan Pablo González de Langarika bilbotarrak jaso dau gaur Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan.

Hasi gaituzan aztertzen zelan dagoan eginda saltoa titulutik lehenengo perpausera, hemen zerk egiten dauan loturea tituluagaz: *Pablo González de Langarika bilbotarrak* informazinoak, zeina, behean (baltzean adiarazoa), sartuta dagoan NORK sintagma luzean (kortxete barruan):

- [Aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan 'Zurgai' poesia aldizkariko zuzendari eta bihotz eta arimea dan **Pablo González de Langarika bilbotarrak**]

Sintagma horrek -eta, bidez batez esateko, informazino bat itziko dogu alde batera (...*jaso dau gaur Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan*) geroago aztertze- ordena antilogiko hau dauka (lehenengo osagarriak; gero, gunea):

Osag1 + Osag2 + GUNEA

- Osag1: Aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan

-Osag2: 'Zurgai' poesia aldizkariko zuzendari eta bihotz eta arimea dan

Lotura-berbea informazino gunea da eta azkenengo lekuan dagoenez sintagman, transizino txarra dago titulua eta perpausaren artean; izan be, irakurleak titulutik lotura-hitzera arte irakurri behar dau alperrik, lotura barik tituluagaz, informazino hori lar luzea dala (*Aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan 'Zurgai' poesia aldizkariko zuzendari eta bihotz eta arimea dan*). Gura badogu errez irakurri, aurrerengo ipini behar dogu lotura-berbea, informazino gunea (*Pablo González de Langarika bilbotarrak*), eta osagarri biak, atzean. Osterantzean esateko, jatorrizko sintagma luzeak, itxuraz, honako eskema hau daukala (ordena logikoa: lehenengo, gunea; ondorik, osagarriak):

GUNEA + Osag1 + Osag2

Baina kontuan hartuta bigarren osagarriak (Osag2) menpekoa daukala lehenengoa (Osag1), aldatu beharra dago ordenean osagarrien artean:

GUNEA + Osag2 + Osag1

Zelan lotuko gendukez GUNEA eta Osag2?

- [Pablo González de Langarika bilbotarrak] + ['Zurgai' poesia aldizkariko zuzendari eta bihotz eta arimea dan]

Erabili leiteke erlatibo apositiboa (-ena):

- (1) Pablo González de Langarika bilbotarrak, ['Zurgai' poesia aldizkariko zuzendari eta bihotz eta arimea danA],

Ikusten dogunez, apositizino bidez emonda (progresino tematiko egokia eginda tituluagaz, salto barik informazinoan), askoz errezago irakurten da. Badaukaguz beste baliabide batzuk be, erlatibo apositiboagaz gain (-ena), besteak beste zeinismoa (*zein-en/bait-*):

ZEIN -eN

- (2) Pablo González de Langarika bilbotarrak, ZEIN(A) 'Zurgai' poesia aldizkariko zuzendari eta bihotz eta arimea dan,

ZEIN BAIT-

- (3) Pablo González de Langarika bilbotarrak, ZEIN(A) 'Zurgai' poesia aldizkariko zuzendari eta bihotz eta arimea BAITa,

Hiru aukeretan -(1), (2) eta (3)- hobetu leiteke progresino tematikoa, '*Zurgai' poesia aldizkariko* informazinoa NON bihurtuta, eta atzera eroanda:

-eNA

- (1a) Pablo González de Langarika bilbotarrak, zuzendari eta bihotz eta arimea (danA) 'Zurgai' poesia aldizkariAN,

ZEIN -eN

- (2a) Pablo González de Langarika bilbotarrak, ZEIN(A) zuzendari eta bihotz eta arimea dan 'Zurgai' poesia aldizkariAN,

ZEIN -BAIT-

- (3a) Pablo González de Langarika bilbotarrak, ZEIN(A) 'Zurgai' poesia aldizkariko zuzendari eta bihotz eta arimea BAITa,

Irakurlea, kargutu zaitez (1a)n informazino bat (*danA*) parentesi artean sartu dogula. Kenduta hobeto dago.

Behin lotuta GUNEA eta Osag2, geratzen jaku Osag1-egaz lotzea. Osterantzean esateko, hurrengo eskemea osatu behar dogu:

GUNEA + Osag1 + Osag2

Abiatu gaitzean (1.a)tik eta gaineratu deiogun Osag1 (kortxete artean):

- (1b) Pablo González de Langarika bilbotarrak, zuzendari eta bihotz eta arimea (danA) 'Zurgai' poesia aldizkariAN + [Aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan],

Zelan lotu kortxete barruko informazinoa aurrekoagaz? Zeinismoak, behintzat, ezin hobeto funtzionatzen dau:

ZEIN -eN

- (1c) Pablo González de Langarika bilbotarrak, zuzendari eta bihotz eta arimea (danA) 'Zurgai' poesia aldizkarian, ZEINAK/ZEINEK aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan,

ZEIN BAIT-

- (1d) Pablo González de Langarika bilbotarrak, zuzendari eta bihotz eta arimea (danA) 'Zurgai' poesia aldizkarian, ZEINAK/ZEINEK aurtengo udabarrian 30 urte bete BAITitu,

Eta erlatibo apositiba erabilia?

- (1e) Pablo González de Langarika bilbotarrak, zuzendari eta bihotz eta arimea (danA) 'Zurgai' poesia aldizkarian, aurtengo udabarrian 30 urte bete dituaNA,

Begitantzen jaku ez dala egokia, baina hor dago inork erabili gura izanez gero. Badago beste aukerarik? Egon badago, baina orain ez da une egokia horretarako, eta gero, testu osoa aztertzerakoan, orduantxe plazaratuko dogu.

Lehenengo perpausean informazino bat laga dogu aztertu barik (...jaso dau gaur Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan). Oraintxe dago erea xertatzeko perpausean, horretarako (1b) aukerea hartuta:

- (1f) Pablo González de Langarika bilbotarrak, zuzendari eta bihotz eta arimea (danA) 'Zurgai' poesia aldizkarian, zeinak aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan, jaso dau gaur Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan.

Gura izanez gero, *gaur* elementua ipini leiteke aditz aurrean (*jaso dau*):

- (1g) Pablo González de Langarika bilbotarrak, zuzendari eta bihotz eta arimea (danA) 'Zurgai' poesia aldizkarian, zeinak/zeinek aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan, jaso dau gaur Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan.

Aztertu daigun bigarren perpausa progresino tematikoaren aldetik:

- Josune Ariztondo BFAko Kultura diputaduren eskutik jaso dau Urrezko Luma saria

Komeni jaku bigarren perpausaren aurretik ipintea lehenengoa, eta horretarako, (1g) aukeratuko dogu (kortxete barruan):

- (1h) [Pablo González de Langarika bilbotarrak, zuzendari eta bihotz eta arimea (danA) 'Zurgai' poesia aldizkarian, zeinak/zeinek aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan, gaur jaso dau Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan]. Josune Ariztondo BFAko Kultura diputaduren eskutik jaso dau Urrezko Luma saria

Galdegaia aditz aurrean erabili zaleak esango dabe bikain dagoala, baina guk bestera pentsetan dogu; izan be, galdegaia (*Josune Ariztondo BFAko Kultura diputaduren eskutik*) lar luzea da, eta ez dauka loturarik aurreko informazinoagaz. Osterantzean esateko, progresino tematiko txarra eragiten dau galdegaia dagoan lekuan dagoala, zeren-eta irakurleak lehenengo perpausa irakurrita ez baitu loturarik topauko aditzera heldu arte (*jaso dau*), eta hori salto handiegia da. Galdegaia aditz aurrean erabili behar dala guzur hutsa danez ahozko eta idatzizko tradizioan (ikus

Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I), 12. unitatea Kaltzakorta 2007), eroan daigun aditz ostera eta horrela lortu progresino tematiko egokia:

- (1i) [Pablo González de Langarika bilbotarrak, zuzendari eta bihotz eta arimea (danA) 'Zurgai' poesia aldizkarian, zeinak aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan, gaur jaso dau Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan]. Urrezko Luma saria jaso dau **Josune Ariztondo BFAko Kultura diputaduren eskutik**.

Holan, aurrerengo erabilia *Urrezko Luma saria* informazinoa, lotura bikaina egiten da lehenengo eta bigarren perpausen artean. Edozein modutan, guk bigarren perpausean ez genduke *Urrezko Luma saria* osagaia erabiliko, ezpabere *Saria* edo *Sari HORI*.

Lehenengo perpausa jorratzerakoan, esan dogu badagozala beste estrategia batzuk. Hona hemen hiru:

- (4) Pablo González de Langarika bilbotarra zuzendari eta bihotz eta arimea DA 'Zurgai' poesia aldizkarian -30 urte bete ditu aurtengo udabarrian-, ETA (BERAK) jaso dau gaur Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan]. Urrezko Luma saria jaso dau Josune Ariztondo BFAko Kultura diputaduren eskutik
- (5) Pablo González de Langarika bilbotarra DA zuzendari eta bihotz eta arimea 'Zurgai' poesia aldizkarian, (BERONEK) bete dituALA(RIK) 30 urte aurtengo udabarrian, ETA (BERAK) jaso dau gaur Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan]. Urrezko Luma saria jaso dau Josune Ariztondo BFAko Kultura diputaduren eskutik
- (6) [Pablo González de Langarika bilbotarrak, BERAU zuzendari eta bihotz eta arimea 'Zurgai' poesia aldizkarian -30 urte bete ditu aurtengo udabarrian-, gaur jaso dau Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan]. Urrezko Luma saria jaso dau Josune Ariztondo BFAko Kultura diputaduren eskutik

Hona hemen proposamen bat (2a) zelan geratuko litzatekean jatorrizko testua, ikusitako orraztuak eginda:

Pablo González de Langarikarentzat Urrezko Luma saria

Pablo González de Langarika bilbotarrak, zuzendari eta bihotz eta arimea 'Zurgai' poesia aldizkarian, zeinak aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan, gaur jaso dau Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan. Urrezko Luma saria jaso dau Josune Ariztondo BFAko Kultura diputaduren eskutik

Beharbada, argiago honetara:

Pablo González de Langarikarentzat Urrezko Luma saria

Pablo González de Langarika bilbotarrak -- zuzendari eta bihotz eta arimea 'Zurgai' poesia aldizkarian, zeinak aurtengo udabarrian 30 urte bete dituan-- gaur jaso dau Urrezko Luma saria Bilbon, Liburu Azokearen barruan. Urrezko Luma saria jaso dau Josune Ariztondo BFAko Kultura diputaduren eskutik

Oratu deiogun bigarren testuari eta jorratu:

2.testua

‘Euskarak elkartzen gaitu’ Beran

Aurten zazpi udalerrik egin dabe UEMAn sartzeko eskaerea eta, beraz, Nafarroako Araitz, Bera, Etxalar eta Larraun udalerriak, Gipuzkoako Amezketa eta Elgeta eta Bizkaiko Busturia Ueman sartuko dira modu ofizialean datorren zapatuan

Agirian dago perpaus bakarrez dagoala osatuta testua. Halanda be, zati bitan jorratuko dogu:

- Aurten zazpi udalerrik egin dabe UEMAn sartzeko eskaerea
- eta, beraz, Nafarroako Araitz, Bera, Etxalar eta Larraun udalerriak, Gipuzkoako Amezketa eta Elgeta eta Bizkaiko Busturia Ueman sartuko dira modu ofizialean datorren zapatuan

Aztertu daigun zelan dagoan eginda progresino tematikoa lehenengo partean, bai tituluari buruz, bai partean bertan, hasikeratik amaieraraino:

- **‘Euskarak elkartzen gaitu’ Beran**
Aurten zazpi udalerrik egin dabe UEMAn sartzeko eskaerea

Ez dakienarentzat ezer UEMaren gainean ez dago ezer lotzekorik testuko lehenengo partean tituluagaz. Aztertu daigun lehenengo parte hori progresino tematikoaren aldetik. Ez dago, esateko, txarto, baina hobetu leiteke ZER sintagma hartuz gero

- UEMAn sartzeko eskaerea

eta aurreratu informazio gunea (*eskaerea*) eta atzeratu sekundarioa, osagarria (*UEMAn sartzeko*):

- (1) Aurten zazpi udalerrik egin dabe **eskaerea** UEMAn sartzeko

Pasa gara sintagma batetik, ordena antilogikoa emona, beste batera, hurrenkera logikoa eratua, eta aldaketa horrek dakar progresino tematikoa hobea izatea eta, horrenbestez, irakurleak errezago irakurtea.

Aztertu daigun bigarren parte progresino tematikoaren aldetik, kontuan hartuta lehenengo parte (kortxete artean sartu dot):

- (2) [Aurten zazpi udalerrik egin dabe eskaerea UEMAn sartzeko] eta, beraz, Nafarroako Araitz, Bera, Etxalar eta Larraun udalerriak, Gipuzkoako Amezketa eta Elgeta eta Bizkaiko Busturia Ueman sartuko dira modu ofizialean datorren zapatuan.

Gauza batek emoten deusku atentzinoa bigarren zatian: gaur egun jokera amorratua dagoalarik aditz aurrean erabilteko galdegaia (perpauseko osagairik garrantzitsuena-edo), 0 (2)an aditz aurreko osagaia (*Ueman*) ez da galdegaia. Are gehiago kendu leiteke eta ez da ezertxo be jazotzen:

- (2a) Aurten zazpi udalerrik egin dabe eskaerea UEMAn sartzeko eta, beraz, Nafarroako Araitz, Bera, Etxalar eta Larraun udalerriak, Gipuzkoako Amezketa eta Elgeta eta Bizkaiko Busturia sartuko dira modu ofizialean datorren zapatuan.

Argi geratu da galdegaia NORTZUK sintagma dala (*Nafarroako Araitz, Bera, Etxalar eta Larraun udalerriak, Gipuzkoako Amezketa eta Elgeta eta Bizkaiko Busturia*), baina lar luzea da eta errezago irakurteko komeni da -ahozko eta idatzizko tradizioari segituz gero- aditz atzean erabiltea (kontuan izanik aditza bera *-sartuko dira-* informazio ezaguna dala lehenengo partetik):

- (2b) Aurten zazpi udalerrik egin dabe eskaerea UEMAn sartzeko eta, beraz, **sartuko dira** Nafarroako Araitz, Bera, Etxalar eta Larraun udalerriak, Gipuzkoako Amezketa eta Elgeta eta Bizkaiko Busturia modu ofizialean datorren zapatuan.
- (2c) Aurten zazpi udalerrik egin dabe eskaerea UEMAn sartzeko eta, beraz, [datorren zapatuan] [modu ofizialean] **sartuko dira** Nafarroako Araitz, Bera, Etxalar eta Larraun udalerriak, Gipuzkoako Amezketa eta Elgeta eta Bizkaiko Busturia.

Kontu bi: batetik, *beraz* lokailu hori tokiz kanpo-edo dago; bestetik, NORTZUK sintagma emon leiteke beste era batera, errezago:

- (2d) Aurten zazpi udalerrik egin dabe eskaerea UEMAn sartzeko eta datorren zapatuan modu ofizialean sartuko dira Nafarroatik Araitz, Bera, Etxalar eta Larraun udalerriak; Gipuzkoatik Amezketa eta Elgeta; eta Bizkaitik Busturia.

Guk azkenengo aukerea dogu nahien, eta eredutzat proposatzen dogu:

‘Euskarak elkartzen gaitu’ Beran

Aurten zazpi udalerrik egin dabe eskaerea UEMAn sartzeko eta datorren zapatuan modu ofizialean sartuko dira Nafarroatik Araitz, Bera, Etxalar eta Larraun udalerriak; Gipuzkoatik Amezketa eta Elgeta; eta Bizkaitik Busturia.

Oratu deiogun eta jorratu hirugarren testua:

3.testua

David Carradine aktore estadubatuarra hilda topau dabe

Kill Bill filman eta *Kung Fu* telesailean egindako lanagaitik mundu mailan ezaguna izan dan David Carradine aktore estadubatuarra hilda topau dabe Bangkokkeko hotel bateko gela batean. Aktorea 'Stretch' filma grabetan egoan Tailandian. Kaliforniarra (AEB) zan eta 72 urte zituan.

Testua hiru perpausuz osatuta dago. Jorratu daigun lehenengo perpausa progresino tematikoaren aldetik, zelan egiten dauan transizinoa tituluari buruz. Argi dago lehenengo perpausuan lehenengo informazioak

- *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean egindako lanagaitik mundu mailan ezaguna izan dan

ez daukala loturarik tituluagaz, ezpabere, hurrengo osagaiak (*David Carradine aktore estadubatuarra*). Esan leiteke lehenengo osagai biak atzekoz aurrera dagozala emonda, ordena antilogikoan:

Osag + GUNEA

Osagarria: *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean egindako lanagaitik (...)

GUNEA: *David Carradine aktore estadubatuarra*

Eta gunek egiten dabenez lotura tituluagaz, aurreratu beharra dago eta osagarria atzeratu. Osterantzean esateko, ordena logikoan emon beharra dagoz osagai biak:

GUNEA + Osag

Mamindu daigun eskema hori, erlatibo apositiboa erabilita (-ena):

- David Carradine aktore estadubatuarra, *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean egindako lanagaitik mundu mailan ezaguna izan danA,

Osagarria aposizino formatoan emon dogu. Aposizinoa bera progresino tematiko hobean emon beharra dago; izan be, informazino gunea (*David Carradine aktore estadubatuarra*)-ren lotura-berbea danA da, eta berau azken lekuan dago aposizino barruan. Eroan daigun ahalik aurreen:

- (1) - David Carradine aktore estadubatuarra, **ezaguna izan danA mundu mailan** *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean egindako lanagaitik,
- - David Carradine aktore estadubatuarra, ezaguna izan danA mundu mailan **egindako lanagaitik** *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean,

Beste baliabide batzuk be erabili leitekez, erlatibo apositiboagaz gain:

ZEINISMOA

- (1a) - David Carradine aktore estadubatuarra, ZEIN(A) ezaguna izan dan mundu mailan egindako lanagaitik *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean,
- - David Carradine aktore estadubatuarra, ZEIN(A) ezaguna izan BAITa mundu mailan egindako lanagaitik *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean,

BERONISMOA

- (1b) - David Carradine aktore estadubatuarra, BERA ezaguna izanA mundu mailan egindako lanagaitik *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean,
- (1c) - David Carradine aktore estadubatuarra, BERA ezaguna izan DELARIK mundu mailan egindako lanagaitik *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean,

ETA JUNTAGAILUA

- (1d) - David Carradine aktore estadubatuarra; ETA BERA ezaguna izan zan mundu mailan egindako lanagaitik *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean,

Ipini daigun lehen perpausa oso-osorik, (1a)tik abiatuta:

- (1e) - David Carradine aktore estadubatuarra, zein(a) ezaguna izan dan mundu mailan egindako lanagaitik *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean, hilda topau dabe Bangkokkeko hotel bateko gela batean

Errez irakurten da, baina errezago irakurri leiteke NON sintagma deseginda (*Bangkokeko hotel bateko gela batean*):

- (1f) - David Carradine aktore estadubatuarra, zein(a) ezaguna izan dan mundu mailan egindako lanagaitik *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean, hilda topau dabe BangkokkeN, hotel bateko gela batean
- (1f) - David Carradine aktore estadubatuarra, zein(a) ezaguna izan dan mundu mailan egindako lanagaitik *Kill Bill* filman eta *Kung Fu* telesailean, hilda topau dabe BangkokkeN, hotel bateAN, gela batean

Beste perpaustxu biak onargarri dagoz dagozanean:

- (...) Aktorea 'Stretch' filma grabetan egoan Tailandian. Kaliforniarra (AEB) zan eta 72 urte zituan

Amaitzeko, badagoz, guk dakigula behintzat, beste hiru estrategia, onak be onak:

David Carradine aktore estadubatuarra hilda topau dabe

David Carradine aktore estadubatuarra, ezaguna (izan da LA(RIK)) mundu mailan egindako lanagaitik Kill Bill filman eta Kung Fu telesailean, hilda topau dabe Bangkok-en, hotel bateko gela batean. Aktorea 'Stretch' filma grabetan egoan Tailandian. Kaliforniarra (AEB) zan eta 72 urte zituan.

David Carradine aktore estadubatuarra hilda topau dabe

David Carradine aktore estadubatuarra ezaguna izan da LA(RIK) mundu mailan egindako lanagaitik Kill Bill filman eta Kung Fu telesailean, hilda topau dabe Bangkok-en, hotel bateko gela batean. Aktorea 'Stretch' filma grabetan egoan Tailandian. Kaliforniarra (AEB) zan eta 72 urte zituan.

David Carradine aktore estadubatuarra hilda topau dabe

David Carradine aktore estadubatuarra ezaguna izan da mundu mailan egindako lanagaitik Kill Bill filman eta Kung Fu telesailean, ETA hilda topau dabe Bangkok-en, hotel bateko gela batean. Aktorea 'Stretch' filma grabetan egoan Tailandian. Kaliforniarra (AEB) zan eta 72 urte zituan.

Oratu eta jorratu daigun laugarren testutua. Hurrengo koadroan azkenengo paragrafoa (baltzez) aztertuko dogu bakarra.

4.testua

Zelako esturak izan doguzen aurten gure Athletic dela-eta! Benetako hondamenetik hur-hurrean, -gol bira bakarrik!- egon gara.

Eta hor dihardugu zale guztiok egoera txar horren zergatiak aztertzen, hondamena alboratzeko eta ekiditeko egin behar dena egiteko prest.

Zer hausnartu emon deust aurtengo larrialdi luze horrek.

(...)

Europako altxorrik preziatuena den eta gure kulturaren oinarri sendoena den eta guri geu izatea emoten deuskun euskeraren erabilera ez ete dago "bigarren mailara" edo beherago jausteko arrisku larri be larrian?

Perpau hori nekez be nekez irakurten da progresino tematiko txarra daukalako, eta egokiago antolatu beharra dago normal-normal irakurriko bada. Erreparau

deiogun ondo perpau horri, eta kargutuko gara zati bi dituala, aditzaren (*ez ote dago*) ezkerrean eta eskuman:

- A [Europako altxorrik preziatuena den eta gure kulturaren oinarri sendoena den eta guri geu izatea emoten deuskun] euskera(ren erabilera)
- B ["bigarren mailara" edo beherago jausteko] arrisku (larria)

Zatitortan (A eta B) kortxetez seinaleu ditugu atzerakargak (alperrik erabiltea osagarriak izen (edo aditz) baten aurrean). Atzerakargok eragiten dabe erdipurdiko progresino tematikoa, batez be lehenengoak, zeina lar be lar luzea dan. Hasi gaitez, hortaz, atzerakargok desegiten progresino tematiko egokia lortzeko. Horretarako, lehenengo eta bat, egin daigun perpau aztergaiaren oinarriko eskemea:

- C (...) euskeraren erabilera ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Parentesia barruetan informazio bi dagoz, sekundarioak, osagarriak, gorago esaniko atzerakargak (A eta B):

- Europako altxorrik preziatuena den eta gure kulturaren oinarri sendoena den eta guri geu izatea emoten deuskun
- "bigarren mailara" edo beherago jausteko

Jakinda zelako problema potolo bi daukaguzan, hona hemen zelako eskemaren arabera ebatziko dogun perpau aztergai osoa. Hiru pauso emongo ditugu:

1. Lehenengo, arteztuko dot atzerkarga luzea (Europako altxorrik preziatuena den eta gure kulturaren oinarri sendoena den eta guri geu izatea emoten deuskun). Berau osatuta dago hiru osagarri, hiru erlatiboz:

Osag1

- Europako altxorrik preziatuena deN

Osag2

- gure kulturaren oinarri sendoena deN

Osag3

- guri geu izatea emoten deuskuN

eta banan-banan garatuko ditugu erlatibook (1.1 / 1.1. / 1.3.)

2. Bigarren, arteztuko dogu bigarren atzerakargea ("*bigarren mailara" edo beherago jausteko*).

3. Hirugarren, perpau osoa jorratuko dogu atzerakarga biekaz batera.

1.1 Hasi gaitez lehenengo erlatiboa egoki erabilten. Horretarako, eta lehenengo eta behin, txertau daigun erlatibo hori oinarriko eskeman (C):

- (1) **Europako altxorrik preziatuena deN** euskeraren erabilera ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Hor kenduz gero “-aren erabilera”, ez da behar-eta, hobeto geratzen da testua, naturalago.:

- (1a) **Europako altxorrik preziatuena deN** euskera ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Irakurleak itaundu leike perpaus horretan zergaitik dagoan oker erabilita erlatiboa (baltzez). Azaldu daigun: badaukagu erreferente bat (*euskera*), eta bera identifikatuta, alperrik dago erabilita erlatiboa, edo beste edozein osagarri (izenlagun), entidadearen aurretik. Kargea besterik ez dau eragingo irakurteko, progresino tematiko txarra. Beraz, erlatiboa eroan behar da izen edo erreferente (*euskera*) ostera, gura badogu errez, natural eta normal irakurri. Oraturik (3)-ari, zelan eroan atzera erlatiboaren informazioa? Hainbat estrategia dagoz:

- Erlatibo apositiba (-ena)
- Zeinismoa (zein -en/bait-)
- Beronismoa (bera(u), bera, han, bertan...)
- Eta juntagailua
- ...

Hasi gaitezcan erlatibo apositiba erabiliz:

- (1b) Euskera, Europako altxorrik preziatuena denA, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Erlatibo apositiba izen atzean dago, aposizinoan (horra zergaitik daroan komea). Beste estrategia bat, oso potentea, zeinismoa da (ondoren eskaintzen ditugu hainbat aukera, zeintzuetan azkenengoa dagoan ondoen erabilita progresino tematikoaren aldetik):

ZEINISMOA

- (1c) Euskera, ZEIN(A) Europako altxorrik preziatuena deN, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- Euskera, ZEIN(A) altxorrik preziatuena deN EuropaN, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- Euskera, ZEIN(A) Europako altxorrik preziatuena BAITa, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- Euskera, ZEIN(A) BAITa Europako altxorrik preziatuena, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- Euskera, ZEIN(A) BAITa altxorrik preziatuena EuropaN, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Beste baliabide bat, eta hau be oso funtzionala, beronismoa:

BERONISMOA

- (1d) Euskera, BERAU Europako altxorrik preziatuena, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- Euskera, Europako altxorrik preziatuena BERA(U), ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- (1e) Euskera, BERAU Europako altxorrik preziatuena deLA(RIK), ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- Euskera, BERAU Europako altxorrik preziatuena izanDA, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- Euskera, BERAU izanIK Europako altxorrik preziatuena, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Ikusten danez, bigarren moltsoko adibideetan, beronismoaz gainera, beste atzizkiren bat ageri da (-eLARIK, -TA eta -rIK). *Eta* juntagailua be baliabide egokia da, eta testuinguruaren arabera, erabili leiteke bakarrik edo erakusleren bat daukala lagun:

ETA JUNTAGAILUA

- (1f) Euskera, ETA berau da Europako altxorrik preziatuena, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Ahozkoan, askotan, lotura egiteko zatien artean ez da erabilten baliabide agirikorik (ez juntagailurik, ez menderagailurik, ez bestelakorik ere):

IRAGARLE BARIK

- (1g) Euskera, Europako altxorrik preziatuena, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- Euskera, altxorrik preziatuena European, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Badago beste estrategia bat be, ona be ona, baina aspaldion lar gitxi erabilia, zoritxarrez, *-ela(rik)* menderagailua (aurrerengo lekuan erabilita markotzat):

- (1h) Euskera Europako altxorrik preziatuena deLA(RIK), ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- Euskera altxorrik preziatuena deLA(RIK) EuropaN, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Menderagailu horren ordez (*-ela(rik)*) erabili leitekez atzizki bi, gitxienez, (*-ta* eta *-rik*):

- (1i) Euskera Europako altxorrik preziatuena izanDA, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- Euskera altxorrik preziatuena izanIK EuropaN, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

- Euskera izanIK altxorrik preziatuena EuropaN, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Susmoa daukat, susmo handia be handia, aukerotako aurrerengo perpausak, markotzat erabiliak, esangura kontsesiboa dabela; eta, horrenbestez, NAHIZ ETA eta -ARREN menderagailuak erabili leitekezala:

- (1j) Euskera Europako altxorrik preziatuena izanARREN, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- Euskera altxorrik preziatuena izanARREN EuropaN, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- (1k) NAHIZ ETA euskera Europako altxorrik preziatuena izan, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- NAHIZ ETA euskera altxorrik preziatuena izan EuropaN, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Gura izanez gero, NAHIZ ETA eta ARREN bidez izan aditza jokau leiteke (... preziatuena **den**...).

1.2 Oratu deiogun bigarren erlatiboari (-en) eta txertau oinarritzko eskeman (C):

- (2) **gure kulturaren oinarri sendoena deN** euskeraren erabilera ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

1.1en zer egin dogun (kendu “-ren erabilera”), haxe egingo dogu hemen be:

- (2a) **gure kulturaren oinarri sendoena deN** euskera ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Erabili daiguzan hemen be lehenengo erlatiboan aplikaturiko osabideak:

- Erlatibo apositiboa (-ena)
- Zeinismoa (zein -en/bait-)
- Beronismoa (bera(u), hau, bertan, han...)
- Eta juntagailua
- ...

Hona hemen banan-banan erabilia baliabideak:

ERLATIBOA APOSITIBOA

- (2b) euskera, gure kulturaren oinarri sendoena deNA, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

ZEINISMOA

- (2c) euskera, ZEIN(A) gure kulturaren oinarri sendoena deN, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- euskera, ZEIN(A) gure kulturaren oinarri sendoena BAITa, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

BERONISMOA

- (2d) euskera, BERAU gure kulturaren oinarri sendoena, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- euskera, gure kulturaren oinarri sendoena BERA(U), ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- (2e) euskera, BERAU gure kulturaren oinarri sendoena deLA(RIK), ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- euskera, BERAU deLA(RIK) gure kulturaren oinarri sendoena, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- euskera, BERAU gure kulturaren oinarri sendoena izanDA, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- euskera, BERAU izanIK gure kulturaren oinarri sendoena, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

ETA JUNTAGAILUA

- (2f) euskera, ETA berau da gure kulturaren oinarri sendoena, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Badakigu, 1.a apartaduan ikusita, erabileroz gain, badagoala beste bat, perpaus markoa sortuta aurrerengo lekuan (-ela(rik) menderagailua eta -rik edo -ta atzizkiak):

-eLA(RIK) MENDERAGAILUA

- (2j) euskera gure kulturaren oinarri sendoena deLA(RIK), ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- euskera deLA(RIK) gure kulturaren oinarri sendoena, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

ATZIZKIAK (-rik eta -ta)

- (2h) euskera gure kulturaren oinarri sendoena izanDA, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- euskera izanIK gure kulturaren oinarri sendoena, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Goiko aldaera guztietan (baita jatorrizko perpausetan be) egin leiteke aldatutxu bat informazino osagaietan. Honako informazinoa daukagu bigarren erlatiboan:

- euskera gure kulturaren oinarri sendoena da

Hor aldatutxu bat egin leiteke (gure kulturaren bihurtuta gure kulturaren). Honan geratzen da perpausa:

- euskera gure kulturaN oinarri sendoena da
- euskera oinarri sendoena da gure kulturaN

1.3 Heldu deiogun hirugarren erlatiboari eta txertau oinarrizko eskema (C):

- (3) **guri geu izatea emoten deuskuN** euskerak ez ete dauka erabilera (...) arrisku larri be larrian?

Erabili daiguzan hemen be aurreko konponbideak:

- Erlatibo apositiboa (-ena)
- Zeinismoa (zein -en/bait-)
- Beronismoa (bera(u), hau, bertan, han...)
- Eta juntagailua
- ...

Hasi gaitezban banan-banan apliketan baliabideok oinarrizko eskemeari (C), aldaketaxu bi eginda (*euskerak* barik *euskera*; *dauka* barik *dago*):

ERLATIBO APOSITIBOA

- (3a) euskera, **guri geu izatea emoten deuskuN**, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

ZEINISMOA

- (3b) euskera, **ZEINAK/ZEINEK** guri geu izatea emoten deuskuN, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- euskera, **ZEINAK/ZEINEK** guri geu izatea emoten **BAITEusku**, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

BERONISMOA (lagun dauala *-ela(rik)* atzizkia)

- (3c) euskera, **BERONEK** guri geu izatea emoten deusku**LA(RIK)**, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

ETA JUNTAGAILUA (lagun daukala beronismoa)

- (3d) euskera, **ETA** beronek guri geu izatea emoten deusku, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

Pasa gaitezban perpaus markoa egitera aurrerengo lekuan, horretarako *-ela(rik)* menderagailua erabilia (ezin dira erabili *-rik* edo *-ta* atzizkiak):

-eLA(RIK) MENDERAGAILUA

- (3d) euskerak guri geu izatea emoten deusku**LA(RIK)**, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?
- (3d) euskerak emoten deusku**LA(RIK)** guri geu izatea, ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?

2. Pasa gaitezban jorratzera bigarren atzerakargea ("*bigarren mailara*" edo *beherago jausteko*), zeina txertauz gero oinarrizko perpausan (C-(...)) *euskeraren*

erabilera ez ete dago (...) arrisku larri be larrian?), hona hemen zelan geratzen dan:

- (4) euskera ez ete dago "**bigarren mailara**" edo **beherago jausteko** arrisku larri be larrian?

Agirian dagoanez, oinarrizko eskemeari lehenengo partea kendu deutsogu, aurrerago aztertuta dago-eta, eta aditzean aldatu bat egin dogu (*euskeraren erabilera ez ete dago* barik *euskerak ez ete dauka erabilera*), lehenengo partean be egina.

Atzerakargak (baltzez) oztopatu egiten dau progresino tematiko egokia. Eroan daigun atzen lekura:

- (4a) euskera ez ete dagoa arrisku larri be larrian "**bigarren mailara**" edo **beherago jausteko**?

Orain, progresino tematiko egokiago daukala, errezagala irakurten da.

3. Hirugarren apartadu honetan osorik jorratuko dogu perpausa. Gomuta daigun zeintzuk baliabide erabili ditugun orain arte:

- Erlatibo apositiboa (-ena)
- Zeinismoa (zein -en/bait-)
- Beronismoa (bera(u), hau, bertan, han...)
- Eta juntagailua
- ...

Kontuan hartuta hurrengo oinarrizko eskemea (non perpausaren bigarren partea arteztuta dagoan):

ESKEMA

- Euskera (...) ez ete dago arrisku larri be larrian "**bigarren mailara**" edo **beherago jausteko**?

Eskema hori osatzen ahaleginduko gara goiko baliabideak erabiliz banan-banan:

ZEINISMOA

- (A1) Euskera, **ZEIN(A)** Europako altxorrik preziatuena deN, gure kulturaren oinarri sendoena deN eta (berak) emoten deuskuN geu izatea, ez ete dago arrisku larri be larrian "**bigarren mailara**" edo **beherago jausteko**?
- (A2) Euskera, **ZEIN(A)** Europako altxorrik preziatuena deN, gure kulturaren oinarri sendoena eta (berak) emoten deuskuN geu izatea, ez ete dago arrisku larri be larrian "**bigarren mailara**" edo **beherago jausteko**?

ERLATIBO APOSITIBOA

- (B) Euskera, Europako altxorrik preziatuena deNA, oinarri sendoena deNA gure kulturaren eta emoten deuskuNA geu izatea, ez ete dago arrisku larri be larrian "**bigarren mailara**" edo **beherago jausteko**?

- (B) Euskera, Europako altxorrik preziatuena deNA, oinarri sendoena gure kulturaren eta emoten deuskuNA geu izatea, ez ete dago arrisku larri be larrian “bigarren mailara” edo beherago jausteko?

BERONISMOA

- (C) Euskera, BERAU Europako altxorrik preziatuena, gure kulturaren oinarri sendoena eta BERONEK emoten deuskuLARIK geu izatea, ez ete dago arrisku larri be larrian “bigarren mailara” edo beherago jausteko?

-eLARIK MENDERAGAILUA

- (D1) Euskera, Europako altxorrik preziatuena deLA(RIK), gure kulturaren oinarri sendoena eta (berak) emoten deuskuLARIK geu izatea, ez ete dago arrisku larri be larrian “bigarren mailara” edo beherago jausteko?
- (D2) Euskera, bera(u) deLARIK Europako altxorrik preziatuena, gure kulturaren oinarri sendoena eta berak/beronek emoten deuskuLARIK geu izatea, ez ete dago arrisku larri be larrian “bigarren mailara” edo beherago jausteko?
- (D2) Euskera deLARIK Europako altxorrik preziatuena, oinarri sendoena gure kulturaren eta berak emoten deuskuLARIK geu izatea, ez ete dago arrisku larri be larrian “bigarren mailara” edo beherago jausteko?
- (D2) Euskera deLARIK Europako altxorrik preziatuena, oinarri sendoena gure kulturaren eta berak emon guri geu izatea, ez ete dago arrisku larri be larrian “bigarren mailara” edo beherago jausteko?

HALA ERE

- (E) Euskera DA Europako altxorrik preziatuena, oinarri sendoena gure kulturaren eta berak emoten deusku geu izatea. HALA ERE ez ete dago arrisku larri be larrian “bigarren mailara” edo beherago jausteko?

NAHIZ ETA / ARREN

- (F) NAHIZ ETA euskera izan/dan Europako altxorrik preziatuena, oinarri sendoena gure kulturaren eta berak guri emon geu izatea, ez ete dago arrisku larri be larrian “bigarren mailara” edo beherago jausteko?
- (G) Euskera izanARREN/denARREN Europako altxorrik preziatuena, oinarri sendoena gure kulturaren eta berak guri emon geu izatea, ez ete dago arrisku larri be larrian “bigarren mailara” edo beherago jausteko?

Adibideotan, batzuk gustukoak ditugularik eta beste batzuk ez, behin bakarrik edo birritan erabili ditugu elementu iragarle ezbardinak konponbide berean.

2. Konklusinoak

Aurreko artikuluan zer esan genduan konklusinoetan, hemen esango dot beste behin: aztertutako testuak testuak ote dira? Herren handia daukagu-eta koherentzia. Argi dago ondo idazteko trebeak edo jaiok izen behar dogula gramatika arloan ez eze, baita, eta batez be, arlo diskursiboan.

Laburtzeko, zer hobetu askotxo dago oraingo testu gehienetan, nahi euskera batuan idatziak, nahi bizkaitarrez (edo edozein euskalkitan). Sekuentzietan badogu ondo informazioa, salto barik eta transizino onak eginda, testu komunikagarriro onak lortuko ditugu, eta irakurleak ez ditugu ez alperrik nekatuko ez uxatuko.

3. Aipamenak

- Alberdi Larizgoitia Xabier eta Sarasola Errazkin Ibon. (2001). *Euskal estilo libururantz*. Bilbao: EHU.
- Alberdi, X., Garcia, J. (1996). <<Zein (...) bait/-n>> egitura, in I. Zabala (koord.).
- Aznar Eduardo; Cros Anna; Quintana Lluís. (1991). *Coherencia textual y lectura*. Barcelona: ICE/HORSORI.
- Beaugrande, Robert-Alain de; Wolfgang Ulrich Dressler. (1972). *Introducción a la lingüística del texto*. Barcelona: Ariel, 1997.
- Brown G., Yule G. (1993). *Análisis del discurso*. Visor Libros.
- Calsamiglia, Helena; Amparo Tusón. (1999). *Las cosas del decir*. Barcelona: Ariel.
- Euskaltzaindia. (1993). *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (1999). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - V* (Mendeko Perpausak-I). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia - Jagon Saila. (2008). *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Hidalgo, B. (2002). Hitzien ordena esaldian. *Senez* 25 zb.
- Hidalgo, B. (2006). Erlatibo aukerak euskaraz. *Ikasi eta irakatsi. Hizpide* 59. zb.
- Kaltzakorta Mentxaka, M. (1997). Norbaiten edo zerbaiten berri ematen. *Administrazioa Euskaraz*, 15, 16-17.
- Kaltzakorta Mentxaka, M. (2007): *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I)*: Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Mitxelena, K. (1992). *Orotariko Euskal Hiztegia (V)*. Euskaltzaindia
- Moeschler, Jacques eta Reboul, Anne. (1999). *Diccionario enciclopédico de pragmática*. Madrid: Arrecife Producciones.
- Larringan, L. M. (1998). << Testuaren analisirako zenbait nozioren kontzeptualizazio bidean >> in I. Idiazabal/L.M. Larringan *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzeko baliabideak*.

- Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*. Gasteiz-Vitoria: Arabako Foru Aldundia.
- Larringan, L.M. (2000). *Hizkuntzaren kalitatea*. *Ikastaria 11* (Eusko Ikaskuntza). 65-75.
- Larringan, L.M.; Idiazabal, I. (2005). Euskararen kalitatea aztertzeko marko teorikoa eta metodologikoa. *Ikastaria 14* (Eusko ikaskuntza). 9-29.
- Portolés J. (2004). *Pragmática para hispanistas*. Edit. Síntesis. 2004.
- Rubio, J. (2002). *Euskararen garabideak*. Alberdania.
- Sainz Matilde. (2001). *Azalpenezko testu entziklopedikoaren azterketa eta didaktika*. Donostia. Erein.
- Simone Raffaele. (1993). *Fundamentos de Lingüística*. Barcelona. Ariel Lingüística.
- Zabala, Igone (koord.). (1996). *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.